



## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktuak funtziona dezan honako hauek dira kontuan izan eta zaindu behar ditugun **aspektu garrantzitsuenak**:

Alde batetik, ezinbestekoa izango da lotura zuzena eta eraginkorra izatea alarmaren botoia eta Ertzaintzaren artean, hori baita gure helburu nagusia; emakumeari, arrisku egoeran dagoenean laguntza zuzena eta azkarra ematea.

Bestalde, oso garrantzitsua izango da aplikazioa eta bere zerbitzuak eguneratuta egotea eta baliagarriak izatea. Gure produktuak duen helburu nagusiaz gain, beste hainbat aplikazio eskeintzen ditu emakumeak seguruago sentitzeko, horregatik, ezinbestekoa da aipatu ditugun bi elementuak kontuan hartu eta betetzea.

Aplikazioen bitartez, emakumeak seguru sentitzeko eta horrelako kasuetarako formatzeko, auto-defentsa, hitzaldiak, formakuntza... aukera aniztasuna eman behar diegu. Honetarako, ezinbestekoa izango da ere, erakunde publikoekin harremanetan jarri eta elkarlanean aritzea, hau da, beraiekiko harremana zuzena izatea, hauek izango baitira gure produktua saldu eta produktua ezagutzera eramango dutenak gainera.

Beste kasu batean adibidez, taxi-arrosaren kasuan alegia, beharrezkoa iruditzen zaigu, konpetentziak aliantza bihurtzea gure produktua baliagarria izateko. Horregatik, hori lortzeko, taxi-arrosarekin harremanetan jarriko gara, emakumeei aukera eta laguntza gehiago eskeini ahal izateko.

Argi dago beraz, enpresak badituela **funtsezkoak diren hainbat jarduera**; ekoizpena, plataforma edo sareko jarduerak eta arazoak konpontzea alegia.

**Ekoizpenaren** aldetik, gure enpresak *pultsera feministaren* ekoizpenari emango dio lehentasuna, gure helburua, arrisku egoeran dagoen emakumeari unean uneko laguntza eta nahi izanez gero epaiketarako laguntza zuzena eta azkarra eskaintzea izango baita.

**Plataforma edo sareko jarduerari dagokionez**, gure produktuak aplikazio desberdinak izango ditu, lehen aipatutako helburuaz gain baditugulako beste zenbait helburu ere; emakumeek beraien buruarekiko segurtasuna sendotzeko tailerrak, hitzaldiak, formakuntzak... eskaintzea, honako hauen berri egutegien bitartez emanez, eguna, ordua eta lekua azalduz.

Bestalde, Google-maps feminista bat izango du produktuak, bezero bakoitzaren ingurunera egokituz alegia. Mapa honek, emakumeak seguru sentitzen ez diren leku eta guneak identifikatzen ditu. Horretarako, atal honetan "foro" bat egongo da, emakume bakoitzak gai honi dagokionez nahi duena besteekin konpartitu ahal izateko eta horrela elkar lagundu ahal izango dira.

Gainera, lehen aipatu bezala, taxi feministarekin aliatzen saiatuko gara gure konpetentzia izan beharrean beraiek ere emakumeei laguntza eskaini ahal izateko.

Amitzeko, gure produktuak hatz-digitalaren metodoa izango du, honako honen bitartez desblokeatuko baita pultsera, emakumeen segurtasuna bermatuz, haiek bakarrik izan dezaten *pultsera feminista* desblokeatzeko ahalmena eta ez beste inork.

Eta azkenik, gure produktuak izan ditzaken **arazoak konpontzeko**, erakunde publikoekin arituko gara elkarlanean, bezeroei sortzen zaizkien zalantza eta arazoak konpondu ahal izateko.

Horretaz gain, aplikazioak edo produktuaren funtzionamenduak arazoak emanaz gero, teknikariak izango ditugu honako honi aurre egin ahal izateko.